



**TEXTO DEL PROYECTO DE LEY EN EUSKERA /  
LEGE PROIEKTUAREN TESTUA EUSKARAZ**

**PROYECTO DE LEY DE TERCERA MODIFICACIÓN DE LA LEY DE LA ACTIVIDAD  
COMERCIAL / MERKATARITZA JARDUERARI BURUZKO LEGEA HIRUGARREN ALDIZ  
ALDATZEN DUENA LEGE PROIEKTUA**



## **MERKATARITZA JARDUERARI BURUZKO LEGEAREN HIRUGARREN ALDAKETARAKO LEGE-PROIEKTUA**

### **ZIOEN AZALPENA**

Merkataritza-jardueraren maitzaren 27ko 7/1994 Legeak, bere garaiari eman baitzuten Autonomia Estatutuaren 10.27 artikulua aurreikusitakoaren babesean, bideak ezarri zituen merkataritza-banaketa modernizatzeko, hargatik ahaztu gabe zailtasun bat: ohiko txikizkako merkataritzaren eta sortzen ari ziren banaketa-modu berrien arteko oreka. Hasierako erredakzioan, oso erregulazio gutxi zuen merkataritza-establezimenduen ordutegiei eta irekitzeko egunei buruz.

Merkataritza-jardueraren 7/1994 Legearen lehenengo aldaketa azaroaren 10eko 7/2000 Legearen bitartez etorri zen, merkataritza-ekipamenduen aldetik ordurako maila egokia lortu zuen gizarte bati egokitzeko, eta ekipamendu horien geroko garapena ere bermatzeko, zeuden formatu desberdinen arteko egonkortasuna oinarritzat harturik. 7/2000 Legearen barruan, haren bigarren xedapen gehigarriaren bitartez eman zitzaion gaikuntza Eusko Jaurlaritzari, arauak eman zitzaizkien merkataritza-establezimendu handietako saltokiak ireki eta ixteko ordutegiari buruz.

Xedapen horren babesean eman zuten 33/2005 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-ordutegiei buruzkoa. Dekretu horrek, baina, ez du joan-etorri turistiko handiko lekuri aipatzen.

Merkataritza Ordutegiei buruzko abenduaren 21eko 1/2004 Legearen 5.5 artikulua, egungo erredakzioan, hauek ezarri ditu, besteak beste: biztanleriaren eta urteko gau-igarotzeen muga edo atalase jakin batzuk. Muga horiek gainditzen dituzten udalerriek nahitaez deklaratu beharko dute joan-etorri turistiko handiko leku bat, gutxienez, oinarritzako edukia baitu artikulua horrek.

Legezko obligazio hori betetze aldera eta, era berean, gure erkidegoko beste udalerri batzuk ere joan-etorri turistiko handiko lekuaren deklaraziora bildu ahal izan daitezkeen, nahitaezkoa da horretarako prozedura arautzea: horra aldaketa honen funtsezko helburua.

Garrantziko jarduera da turismoa gure erkidegoan, eta goranzko joera moderatua erakusten du: gau-igarotzeek, adibidez, 5 milioitik gora jo zuten 2013.ean. Beraz, zerbitzu egokia eman behar zaio, sortutako esperantza edo igurikimenei erantzuteko eta bisitariak erakartzeko, gerora ere. Joan-etorri turistiko handiko lekutzat deklaratzearen ondorioz aipagarriena da bertako txikizkako saltokiek askatasuna izango dutela ordutegiak eta irekitzeko egunak aukeratzeko, eta horrek lagundu egingo du eskaintza osatuago eta erakargarriago egiten, eskaintza turistikoa osatzeko, zeina ohitua baitago jaiegunetan lan egiten, beste ordutegi batzuekin. Horrenbestez, bi sektoreen lehiakortasuna hobetuko da.

Era berean, berriz ere eman nahi zaio gaikuntza Eusko Jaurlaritzari, erregelamendu bidez gara ditzan, gerora, merkataritza-ordutegiei buruzko arauak. Izan ere, ekainaren 25eko 7/2008 Legeak, Merkataritza Jardueraren Legeari bigarren aldaketa egin zionak, azken xedapenetatik lehenengoaren bitartez aldatu zizkion otsailaren 22ko 33/2005 Dekretuari bere aplikazio-eremuko merkataritza-establezimenduak.

Egoki da gogoratzea Merkataritza-jardueraren maiatzaren 27ko 7/1994 Legeak beste bi aldaketa ere izan dituela, txikiagoak, lege hauen bitartez: 6/2003 Legea, abenduaren 22koa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarena, eta 7/2012 Legea, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Direktibara egokitze aldera zenbait lege aldatzekoa.

Beste alde batetik, kontuan hartuta merkataritza-jardueraren bitartez ondasunak eta zerbitzuak eskaintzen zaizkiela kontsumitzaile-erabiltzaileei, beharrezkotzat jo da aldatuko den legean jasotzea euskararen erabileraren sustapena, bat etorrita aipatu 6/2003 Legearekin (abenduaren 22koa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarena), kapitulu bat baitu, II. tituluko VII. kapitulua hain zuzen, pertsona horien hizkuntza-eskubideei buruzkoa.

Legearen aldaketaren xedapen-zatiak hiru artikulua ditu, bai eta azken xedapen bat ere. Artikuluetan lehenak euskararen erabilera bultzatzea sartu du legearen antolamendu-printzipioetan. Bigarrenak, lehenengo xedapen gehigarria gehitu dio legeari, joan-etorri turistiko handiko lekuak izendatu edo deklaratzeko prozesua arautzeko. Hirugarren artikulua, bere aldetik, erregelamenduetara jotzen du merkataritza-ordutegien geroko erregulaziorako, eta beste xedapen gehigarri bat erantsi dio legeari, bigarrena. Azken xedapena, atzenik, legeak indarra hartzeari buruzkoa da.

Orobat, kontuan izan dira Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritako neurriak.

**Lehenengo artikulua.**- Paragrafo bat eransten zaio merkataritza-jardueraren maiatzaren 27ko 7/94 Legearen 49. artikuluari, eta idazkera hau izango du:

"49. artikulua.- Antolamendu-printzipioak

Administrazio-ekintzak gidaritzat izango ditu lehia aske eta leialaren printzipioa eta kontsumitzaileen eta bezeroen bidezko interesen defentsaren printzipioa; horrenbestez, behar adina neurri hartuko da merkataritza-jardueraren arrazionalizazioa eta modernizazioa bilatzeko, bai eta euskararen erabilera bultzatzeko ere."

**Bigarren artikulua.**- Xedapen gehigarri bat eransten zaio merkataritza-jardueraren maiatzaren 27ko 7/94 Legeari, eta idazkera hau izango du:

"LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.- Joan-etorri turistiko handiko lekuak izendatzea.

1.- Lege honen ondorioetarako, joan-etorri turistiko handiko lekutzat hartuko da ondorengo inguruabarretatik edozein betetzen duena:

- a) Nahikoa ostatu-plaza eta turismo-establezimendu izatea, kuantitatiboki zein kualitatiboki, edo nahikoa bigarren etxebizitza, ohiko etxebizitzaren kopuruarekin alderatuta.
- b) Gizadiaren Ondare izendatua izatea, edo euskal kultura-ondarea osatzen duten kategorietako baten barruko ondasunak izatea, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak edo lege horren ordezkoko legeriak ezarritakoaren arabera.
- c) Muga-guneen eragin-eremua izatea edo haien ondoan egotea.
- d) Estatu-mailako edo nazioarteko kirol- edo kultura-ekitaldi handiak egitea.
- e) Itsas bidaia turistikoak gelditzen diren eta bisitari asko dituzten portuetatik hurbil egotea.
- f) Erakargarritasun nagusia erosketa-turismoa duen gunea izatea.
- g) Hala justifikatzen duten baldintza bereziak izatea.

2.- Joan-etorri turistiko handiko lekuak zehazteko, egoki deritzoten udalek proposamen zehatza egingo diote merkataritzaren alorrean eskumena duen sailburuordetzari. Proposamen hori zio eta guztikoa izango da; gutxienez, aurreko puntuan agertutako irizpideen arabera. Gainera, zehatz-mehatz zedarrituko ditu barne hartutako lekua edo lekuak, bai eta urteko zer aldirarako izango den (bat baino gehiago izan daiteke).

Udalek, udal-proposamenari onarpena eman baino lehen, entzunaldiaren izapidea eskainiko diete hauei, egoki iriztitako alegazioan egin ditzaten: dena delako udalerriko merkataritza- eta turismo-sektoreetako ordezkariak handieneko enpresaburu-antolamenduei eta ordezkariak handieneko kontsumitzaile- eta erabiltzaile-antolamenduei, halakorik bada, eta, halakorik ezean, dagokion lurralde historikoko eremuko edo EAEko.

Lege honek xedatuaren ondorioetarako, ordezkariak handieneko enpresaburu-antolamendutzat hartuko dira laneko legeriak erabilitako irizpideen arabera halakotzat jotzen direnak.

3.- Proposamena jasota, hari buruzko ebazpena emango du merkataritzaren alorrean eskumena duen sailburuordetzak; eman ere, proposamena jaso eta lau hilabeteko epean, eta aldeztatik entzunda merkataritza- eta turismo-gai horietan eskumena duen saileko (edo eskumena duten sailetako) aholkularitza- eta kontsulta-organoak. Hauek zehaztuko dira ebazpenean: izendapenaren edo deklarazioaren iraunaldia eta zer leku edo gunetan aplikatuko den. Epe hori igarota ebazpenik eman ez bada, proposamenari onespena eman zaiola ulertuko da.

4.- Joan-etorri turistiko handiko leku izendatzeak hau ekarriko du bertan dauden merkataritza-establezimenduetzat: ordutegietarako eta irekitze-egunetarako askatasuna.

5.- Joan-etorri turistiko handiko leku izendatzeko arrazoiak desagertuz gero, aipatu sailburuordetzak bere esku izango du izendapena bertan behera uztea, interesa duen udalari entzun ondoren."

**Hirugarren artikulua.-** Xedapen gehigarri bat eransten zaio merkataritza-jardueraren maiatzaren 27ko 7/94 Legearen 49. artikuluari, eta idazkera hau izango du:

"BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.- Gaikuntza edo habilitazioa.

Baimena ematen zaio Eusko Jaurlaritzari merkataritza-ordutegiei buruzko erregelamendu-xedapenak eman ditzan, lege hau garatzeko beharrezkoak diren neurrian. Xedapen horietan arautuko dira guztizko ordutegiaren gehieneko mugak, eragindako merkataritza-establezimenduak eta baldintza berezietan egon daitezkeenak."

#### AZKEN XEDAPENA

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da indarrean.